

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Jendaurrean jartzea ur hornikuntza zerbitzuaren tasa arautzen duen 7 zenbakiko udal zerga ordenantzaren 1. eranskinaren aldaketa

Udalbatzak, 2016ko urriaren 27an egindako bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion ur hornikuntza zerbitzuaren tasa arautzen duen udalaren 7 zenbakiko zerga ordenantzaren 1. eranskinaren aldaketari.

Erabakia eta haren aurrekari guztiak jendaurrean egongo dira udaletxeko Idazkaritzan, hogeita hamar egun baliiodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, epe horretan interesa dutenek espedientea aztertu eta egokiak deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, zerga ordenantzak aldatzeko erabakia behin betiko onartutzat emango da, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bateratua onartzen duenak, 17.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Amurrio, 2016ko urriaren 28a

Alkatea

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA